

II. GRAMATIKA

BALDINTZA III: IRREALA (NOR, ZER-NORK)

Aurreko ikasgaien indikatiboko baldintza errepetatu dugu. Orain, alegiazko *balitz*, *balu* eta horrelako baldintza-adizkiak ikasiko ditugu. Gogoan izan bi baldintza-mota egiten direla horiekin:

✓ **IRREALA:** iraganera begiratzen du, gertatu ez den zerbait adieraziz (*si hubiera...*).

Adibidez:

☛ *Nahi izan balu, egingo zuen.*
(si lo hubiera querido, lo habría hecho)

Joan bazina, ikusiko zenuen.
(si hubieras ido, lo habrías visto)

✓ **HIPOTETIKOA:** Orain-gerora begiratzen du, hipotesi bat adieraziz (*si tuviera...*).

Adibidez:

☛ *Nahi balu, egingo luke.*
(si quisiera, lo haría)

Joango bazina, ikusiko zenuke.
(si fueras, lo verías)

Aurrena, baldintza irrealak ikasiko dugu:

<i>Forma:</i>			
	NOR	ZER-NORK	
BA-	BANINTZ	BANU	BANITU
	BAZINA	BAZENU	BAZENITU
	BALITZ	BALU	BALITU
	BAGINA	BAGENU	BAGENITU
	BAZINETE	BAZENUTE	BAZENITUZTE
	BALIRA	BALUTE	BALITUZTE
	-KE	NINTZATEKE	NUKE
ZINATEKE		ZENUKE	ZENITUZKE
LITZATEKE		LUKE	LITUZKE
GINATEKE		GENUKE	GENITUZKE
ZINATEKETE		ZENUKETE	ZENITUZKETE
LIRATEKE		LUKETE	LITUZKETE

Oharra: . Forma hauek iraganari -eN amaiera kenduta egiten dira:

NINTZen ⇒ **baNINTZ, NINTZateke**
ZINen ⇒ **baZINA, ZINATEKE**
NUen ⇒ **baNU, NUke**
ZENUen ⇒ **baZENU, ZENUke**

• Hirugarren pertsonako Z- ⇒ L-

ZUen ⇒ **baLU, LUke**
Zen ⇒ **baLITZ, LITZateke**

Egitura:

Baldintza	Ondorioa
PARTIZIPIOA (IZAN) BALU	EGINGO ZUEN (orduan) EGINGO LUKE (orain-gero)

- Baldintzaren aditz nagusia partizipioan dago beti eta batzuetan *izan* ipintzen da partizipioaren ondoan: *ikusi (izan) balu, jakin (izan) banu, joan (izan) bagina...* *Nahi, behar, bizi, maite* eta horrelakoen partizipioa beti: *nahi izan, behar izan, bizi izan, maite izan...*
- Ondorioa normalean iragana da eta iraganeko geroan doa: *joango nintzen, egingo nuen, erosiko zuten...*

Adibidez:

- ⇒ *Jakin (izan) bagenu, egingo genuen.*
(si lo hubiéramos sabido, lo habríamos hecho)
- ⇒ *Dirua izan balu, erosiko zuen.*
(si hubiera tenido dinero, lo habría comprado)
- ⇒ *Nahi izan balu, egingo zuen.*
(si lo hubiera querido, lo habría hecho)

Batzuetan, ordea, orain-gerokoa da ondorioa eta orduan -KO ...-KE gisakoa izaten da: *egingo zenuke, joango ginateke...*

Adibidez:

- ⇒ *Nahi izan balu, aurrena izango litzateke orain.*
(si hubiera querido, ahora sería el primero)

ARIKETAK

1. IPIN FALTA DEN ADIZKIA

Adibidez:

☛ *Autoz joan izan ...bazina..., lehenago iritsiko zinen*

1. Trenez joan izan, garaiz iritsiko nintzen.
2. Txirrina jo, irekiko zizuten.
3. Polikiago ibili, ez zinen eroriko.
4. Aspirina hartu izan, berehala pasatuko zitzaion buruko mina.
5. Zapata zaharrak jantzi, erosoago ibiliko nintzen.
6. Atseginagoak izan, ez zituzten kalera botako.
7. Suerte pixka bat izan, gurea zen partidua.
8. Agindutako botikak hartu izan, berehala sendatuko zen.
9. Galtzak plantxatu izan, txukunago egongo zinen.
10. Bere kaletik joan izan, ez zuen istripurik izango.
11. Nolako eguraldia egingo zuen jakin izan, ez nintzen aterako.
12. Mugitu izan, aukera onak aurkituko zenituzten merkealdian.
13. Gehiago ikasi, ez lirateke orain horren urduri egongo.
14. Pelikula hori ikusi izan, gau osoan ez zenuten lorik egingo.
15. Ateak ondo itxi izan, ez zen haien etxean lapurririk sartuko.
16. Arinago ibili, ez genuen trena huts egingo.
17. Mikelen txisteak entzun, barrez lehertuko zineten.
18. Pixka bat pentsatu izan, ez zuen horrelakorik egingo.
19. Dena aprobatu izan, ondo pasatuko zituen oporrak.
20. Perretxiko haiek jan, ospitalean izango ginатеke orain.

2. AUKERATU EGOKIENA

Adibidez:

☛ *Gutxiago, diru gehiago izango zenuke orain.*

• *gastatu zenuen* • *gastatu bazenitu* • *gastatzen banu* • ***gastatu bazenu***

1. Horrelakoa da hori; zurekin, beste norbaitekin haserretuko zen.
• *haserretu ez balitz* • *haserretuko ez balitz* • *haserretu ez bazina* • *haserretu zen*
2. Aterkia, ez ginen horrela bustiko.
• *eramango genuen* • *eramango begenuen* • *eraman bagenu* • *eraman bagenitu*
3. Zain zeundela, lehenago etorriko nintzen.
• *jakiten banuen* • *jakin izan banu* • *jakingo nuen* • *jakingo bagenitu*
4. Hain pozik ibiliko zela, lehenago joango zen.
• *jakingo balu* • *jakingo baluke* • *jakin bazenu* • *jakin balu*
5. Partidu guztiak, txapeldun izango zen.
• *galdu balitu* • *irabazi balitu* • *irabazi balu* • *irabazi balitz*

6. Oraintxe joan da zure laguna. Lehenago, ikusiko zenuen.
• iritsi bazina • iritsi bazenu • iritsiko bazina • iritsi banintz
7. Leiho guztiak ondo, ez zen euririk sartuko.
• ireki bazenu • itxi bazenu • itxi bazenitu • itxiko bazenitu
8. Gaztetan, ez nuke orain ezer egiten jakingo.
• mugitu ez banintz • mugitu ez banu • mugituko ez banintz • mugitu zen
9. Suerte pixka bat, aurrenekoan aterako zenuen karneta.
• izango bazenu • izan bazenu • izaten zenuen • izan bazina
10. Hamahiru asmatu ditut; hamalau, miloi bat irabaziko nuen.
• asmatu nituen • asmatu nintzen • asmatu banitu • asmatuko nituzke
11. Zinera, hobeto pasatuko genuen.
• joan ginen • joan zineten • joan bagina • joango ginatete
12. Partidu guztiak, aurrenak izango ziren.
• irabazi banintz • irabazi balituzte • irabazi balute • irabaziko lukete

3. **AUKERATU DAGOKION ONDORIOA.** Gogoan izan:

LEHEN ➡ eginGO zuen
ORAIN-GERO ➡ eginGO luKE

Adibidez:

- ➡ Lehenago mugitu izan bazinete, lehenago.....
• iritsi zineten • **iritsiko zineten** • iritsiko zinateke • iritsiko liratek
- ➡ Polikiago etorri bagina, lasaigo orain
• **ibiliko ginatete** • ibiliko ginen • ibili ginen • ibili ginatete

1. Bi aldiz pentsatu bazenu, ez, horrelakorik
• zenuen...esango • zenuen...esan • zinen...esango • nuen...esango
2. Goizeko seietan irten bagina, hamarretarako hemen
• izango zen • izan ginen • izango ginen • izango genuen
3. Elkarrekin bizi izan bazinete, orain hobeto elkar.
• ezagutuko zenukete • ezagutu zenukete • ezagutu zenuten • ezagutzen zenuten
4. Dirua izan banu, salgai zeuden liburu guztiak
• erosiko nituzke • erosiko nituen • erosi nituen • erosiko nuen
5. Dena aprobatu bazenu, ederki oporrak.
• pasatuko zenuen • pasatuko zenuke • pasatuko zenituzke • pasatu zenituen
6. Dena aprobatu bazenu, pozik orain.
• egongo zinateke • egongo zinen • egon zinen • egon zinateke
7. Gaizki pasatu dituzula oporrak? Diru gehiago eraman bazenu, hobeto.....
• pasatuko zenuen • pasatuko zenituen • pasatuko zenituzke • pasatuko zenuen
8. Hainbeste jende izango zela jakin izan banu, lehenago
• etorriko nintzen • etorriko nintzateke • etorri nintzen • etorriko zen

9. Gose izan balira, gehiago
•jan zuten •jaten zuten •jango zuten •jango lukete
10. Italian jaio balitz, italiarra
•izan zen •izango zen •izango da •izaten zen
11. Hainbeste etorriko zinetela jakin banu, janari gehiago
•jarriko nuke •jarriko nituen •jarriko zen •jarriko nuen
12. Perretxiko haiek txarrak zirela jakin izan balu,
•ez zituen jango •ez zituen jan •ez lituzke jango •ez lituzke jan

4. EUSKARATU

1. Si lo hubiera pensado dos veces, no lo habría hecho.
2. Si hubiera hecho caso, no habría pasado nada.
3. Si hubierais salido antes, habríais llegado a tiempo.
4. Si hubiera hecho mal tiempo, nos habríamos quedado en casa.
5. Si hubiéramos sabido dónde vives, te habríamos visitado.
6. Si hubiera ganado ese partido, habría pasado a la final.
7. Si hubiera andado con cuidado, no se habría caído.
8. Si hubieras dicho que ibas a venir, te habríamos esperado.
9. Si hubieran sido más simpáticos, les habrían abierto todas las puertas.
10. Si hubieras tomado una aspirina, ahora no tendrías dolor de cabeza.
11. Si hubieras visto cómo estaba, habrías venido enseguida.
12. Si hubieras ido ayer, habrías visto un buen partido.

5. HUTSUNEAK BETE

Gaur gure etxe-aurrean istripu bat izan da. Auto batek txirrindulari batzuk jo eta lurrera bota ditu. Zauri larririk ez dute txirrindulariek, zorionez, baina istilua handia izan da: jende asko bildu da istripua izan den lekuan; anbulantziak eta erztainak ere berehala agertu dira, sirena joz.

Jendearen iritziak eta komentarioak ez zetozen bat.

—Txferrak du errua —zioen edadeko andre batek—. Lasterregi ibiltzen dira beti. Hau ere polikiago joan izan, ez zuen inor harrapatuko.

—Bai zera, txferrak! Ziklistak berak dira errudunak —esan zuen berrogei bat urteko gizon batek—. Tropelean ibiltzen dira beti, errepide osoa hartuz. Hauek ere banaka joan, ez zitzaien ezer gertatuko.

—Jendearen kontra aritzen zarete beti zuek —tarteartan sartu zen neska gazte bat—. Nire iritziz errua ez dute ez txferrak ez txirrindulariek. Errua agintariak dute. Kaleak oso gaizki daude. Kale zabalagoak egin izan balituzte, ez zen horrelako istripurik

—Bueno, bueno —esan zuen orduan intelektual-itxurako mutil gazte batek—, denek izango dute erruaren parte bat, ezta? Hara, autoa polikiago joan frenatzeko denbora izango zuen; ziklistak banaka ibili autoa erraz pasatuko zen eta agintariak arreta handiagoa jarri izan hobeto egongo ziren kaleak.

* * *